


Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/1/20 | 356

🌀	Ibon Artola eta Ion Diaz
🌀	Hirukide, euskara plangintzetan erreferente
🌀	Mugikorren marketing-ari buruzko jardunaldiak
🌀	Zaporeak eta dastamena
🌀	Oria Txaranga, 30 urte festaz festa



Laskorain
abesbatza,
proiektu hezigarri
eta erakargarria



hirukide
Tolosa

943 673 948
www.hirukide.org
hirukide@hirukide.org

Biziki hazi,
bizitzen hezi




SUPER EKO *Oinezkoen eremua Erosketak etxera eramateko zerbitzua*
SUPERMERKATUA

Lagun Aro-ren partidarako, VIP gunean, 2 sarrera bikoitza zozketatzen dira.

Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa





aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea, 7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel. 943 650 375
Faxa, 943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

TEKNOLOGIAK DESBERDIN EGITEN DITU
CITROËN TONIC SERIE ESPEZIAL BERRIA

CITROËN C3 1.4i 75CV TONI
9.950€ * TIK

CITROËN C4 VTI 95CV TONI
12.400€ * TIK

CITROËN C4 PICASSO VTI 120CV TONI
14.390€ * TIK

KONSUMO MESTOA (l/100km) / CO₂ EMISIOA (g/km):
CITROËN C3: 3,4 - 6,6 / 87-153
CITROËN C4: 4,2 - 6,4 / 109-148
CITROËN C4 PICASSO: 4,8 - 7,0 / 125-177

Gomendatzen ditugu Citroën C3 1.4i 75cv (54.000€), Citroën C4 VTI 95cv (70.000€) Tonic, Citroën C4 Picasso VTI 120cv (88.000€) Tonic jantziak, garraioak, beharrezkoak eta Ramon Planas barmil 6.000€ko kapital murrizketaren bidez. Partikulariaren zuzendaritza eta finantzazioa erantsi da. Hala ere, erantsi da. Bereziki, PSA Finantziaren bitartez. Beharrezkoak ez gaituzte. www.citroen.es orrian beharrezko kontsultak.

CITROËN
LEARN TO DRIVE

IROVI, S.A. CONCESIONARIO OFICIAL CITROËN. POLIGONO INDUSTRIAL 5/N. TEL.: 943 65 18 42. ANOETA/TOLOSA

nonzer

galtzaundi
Euskara Taldea

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea, 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegiarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Izueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia, Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
Diseinua: Zigor Agirrezabala
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 5.000 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSAKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jasotzen du.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Laskorain abesbatza, proiektu hezigarri eta erakargarria

Laskorain abesbatzak 15 urte bete berri ditu. Abesbatzaren ibilbideaz eta azken proiektuez mintzatu da Galtzaundi Naiara Mintegia zuzendariarekin eta Juantxo Zeberio musikari eta konpositorearekin. Besteak beste, "Yau Samayaye" disko eta bideo kliparen helburuen eta urtarilaren 27an Leidorren Eñaut Elorrieta, Et Incarnatus orkestra, Amaren alabak eta Baigorriko gaiteroekin batera eskainiko duten kontzertuaren berri eman digute.

8-11. orrialdeak

Mikel Gotzon Telleria Tapia (Tolosa, 1948) Tolosako Babarrunaren Kofradiaren eta Tolosako Orfeoien sortzaileetako izan zen, azken honetako lehendakaria bederatzi urtez izanik.

Mikel Gotzon Telleria 14-16. orrialdeak

6	Iritziaren leihoa: Ibon Artola eta Ion Diaz	4-5
6	Normalizazioa: Hirukide, euskara plangintzetan erreferente	6-7
6	Mugikorrentzako marketing-ari onura ateratzeko jardunaldiak	12-13
6	Koxkl: Zaporeak eta dastamena	17
6	Kultura: Oria Txaranga, 30 urte festaz festa	18-19

PPren gobernuaren erasoaldi berria eta langile klasearen alternatiba



Ibon Artola
Euskal Herria Sozialista-ko kidea

4 Euskal Herriko langile, gazte, langabetu eta pentsionisten aurka datorren erasoaldiaren eragina ikusi dugu dagoeneko Grezia, Portugal eta Irlandako herritarren gehiengoaren sufrimenduan. Borrokarekin bakarrik, denboran luzatuko diren mobilizazio eraginkorrekin, kapitalak inposatutako logika onartzen ez duen alternatiba sozialistarekin, askapen nazionala askapen sozialarekin lotuz, izango dugu posible XIX. mendeko lan eta bizi baldintzetara eraman nahi gaituzten planak atzera botatzea.

PPren gobernuaren lehen egunak nahikoa izan ziren erasoaldi berria mahai gainean jartzeko. Abenduaren 30ean herstura plan latz hau onartu zuten: lanaren errenten zergak handitzea (IRPFaren edo IBIaren bitartez), gutxieneko soldata izoztea eta pentsioa %1 igotzea (praktikan murrizketa gogorra

suposatzen du bi kasuetan inflazioa kontutan izanda), gasa eta garraioak garestitzea, enplegu publikoko eskaintza eta langile publikoen soldata izoztea... Hau dena CEOE patronal espainiarraren, FMIaren eta EBZaren eskaera zen. Baina hasiera besterik ez ziren. Hurrengo asteetarako prestatuak zituzten eraso berriak lan erreforma berriarekin eta hezkuntza eta osasunaren aurkako neurriekin.

Euskal burgesiak ez zuen denbora galdu PPren gobernuaren erasoaldiari babesa emateko garaian, lehenago Zapateroren neurri atzerakoi guztiarekin egin zuen bezala. Espainiako erregearen, Bibliaren eta konstituzioaren aurrean Mariano Raxoyk bere presidente kargua zin egin zuen egun berean, Confebask euskal patronaleko idazkari nagusia den Nuria Lopez de Guereñuk (EAJko kidea eta EAJ-EAren Eusko Jaurjaritzako sailburu ohia) garbi adierazi zuen bat egiten zutela bide orokorrean eta helburuetan presidente espainiar berriarekin. Beste behin, euskal bankari eta enpresariak eta hauen ordezkariak beren benetako aurpegia erakusten zuten.

Honen aurrean, Bildu eta Amaiurrek lortutako emaitza historikoak eskubide demokratikoen ukazioak eta kapitalismoaren krisiak sortutako ondorez sozialaren adierazpen garrantzitsua dira. Ezker abertzaleak baldintza guztiak ditu eraldaketa sozialaren alde indar boteretsu batean

bihurtzeko, Euskal Herriko langileen eta gazteen gehiengo irabaziz. Horretarako, beharrezkoa da masa mobilizazioekin jarraitzea eta politika sozialista bat defendatzea, autodeterminazio eskubidea bezalako eskubide demokratikoen aldeko borroka sistema kapitalistaren aurkako klaseko programa iraultzaile batekin lotuz. Kongresu espainiarreko, diputazioetako eta udalteeetako posizioak erabiltzea oso baliagarria da, hau ekin-tza nagusira lotuta: klaseko borrokan esku-hartu langile klasearen, gazteriaren, langabetuen eta pentsionisten sektore gehiago antolatuzko, benetako politika sozialista defendatuz PPK aurrera eraman nahi dituen murrizketa sozialaren aurka.

Mundu osoa azken 70 urtetako borroka sozial garrantzitsuenerantz doa. Hori erakusten dute azken denboraldian Europa osoan antolatzen ari diren greba orokor eta mobilizazio masiboek. Etorkizuna masen borroka, greba orokor eta erradikalizazio politikoa dira. Gertakizun historiko hauek aldaketa erradikala eragingo dute milaka langile, gazte eta langabeturen psikologian eta jarreran, krisiarekin eta kapitalismoarekin bukatzeko alternatiba bila hasiko direlarik. Hain zuzen ere, alternatiba hori gizartearen eraldaketa sozialistaren aldeko borroka da, bankaren eta monopoliaren desjabetzearen aldekoa, hauek langileen kontrolpe demokratikoan jarritz.

Sinestezina eta sinesgarria

Marokoko erresumaren politika errepresiboa nabarmen areagotu da lurralde okupatuetan. Egia gordina dugu. Legez kanpoko atxiloketak, torturak, espetxeratzeak egunerokoak izan dira. Duela urtebete, polizia marokoa batek Said Dambiar 26 urteko gazte sahararra bertatik bertara egindako tiro batez hil zuen El Aaiun hirian. Orduz geroztik, bere sendia alfer alferrik saiatu da Saiden heriotzaren ingurukoak argitzen. Bere hilotzak, legeak agindutakoaren eta bere familiaren borondatearen kontra, El Aaiungo ospitale bateko gorputegian jarraitzen du. Bitartean, Marokoko erresumako agintariak gorpuari autopsia egiteari uko egiten diote eta Saiden familiaren justizia eskaera nazioartean ezikusia bermatzen duen blokeo informatiboan itotzen da. Sinestezina.

Zenbait adituk errebolta arabiarren ernemuina Gdeim Izikeko saharar kanpamenduan kokatzen dute. Marokoa poliziek Marokoko okupaziopean sekula ikusi gabeko protesta kanpamendua 2010eko azaroaren 8an bortizki suntsitu zuten hainbat hildako, zauritu eta atxilotu eraginez. Uneotan, atxilotuetako 23ren egoera lazgarria eta onartezina da giza eskubideetan zein norbanakoen duintasunean sinesten duen edonorentzat. Laidoak, tratu txarrak eta tortura fisikoak nahiz psikikoak etengabe jasan dituzte azken urte honetan Sale 2ko espetxean. Gaixotasun kronikoak eta atzeraezinezko kalteak

dituzte. Marokoko erresumak Gdeim Izikeko kanpamenduan 20.000 saharar bahitu izanaren eta marokoa aberriari traizio egitearen akusaziopean oraingoz datarik ez duen epaiketa militarra inposatu die. Sinestezina.

Aljeriako hego-mendebaldean aurkitzen diren saharar errefuxiatu kanpamenduen egoera ez da hobea. Gogoan dugu oraindik orain iazko urriaren 23aren egunsentian hainbat ezezagunek buruturiko bahiketa. Harez gero, ez da Rosella Urru, Enric Gonyalons eta Ainhoa Fernandez de Rincón nazioarteko kooperatzaileen berriak izan. Fronte polisarria argi mintzatu da. Mohamed Lamine Buhali, defentsa ministroaren arabera, 'marokoa inteligentzia' bahiketaren atzean dago. Tolosaldea Sahararekin elkarrekin espainiar estatuko agintariak, arestian aipaturiko gertakariak, beste behin Mendebaldeko Saharako gatazkan Marokoko erresumaren tesiekin bat egiteko baliatu izana salatzen du. Espainiako gobernuak, erbeste- teko saharar errefuxiatu kanpamenduen existentziaren erantzukizun saihestezina du eta saharar errefuxiatuen bizi baldintza eskasak duintzeko nazioarteko kooperatzaile hauek buruturiko lan eskerga ezinbestekoa dela aski ongi daki. Hala ere, espainiar gobernuak nazioarteko kooperatzaileak saharar errefuxiatu kanpamenduetan utz ditzaten iradokiz, gutxieneko giza eskubideekiko begirune eza



Ion Diaz
Tolosaldea Sahararekin

5 Mendebaldeko Saharako gatazkan hainbat gertaera, gaziak eta gozoak, izan ditugu iragan berri den azken urte honetan.

erakutsi du beste behin ere. Sinestezina.

Gertaera gozoen artean berri- z, uka ezinezko poza suposatzen du europar batasuneko parlamentuak, PP eta PSOEko parlamentarien kontrako bozaren artean, europar batasunaren eta Marokoko erresumaren arteko arrantza akordioa etetea. Saharar diplomazientzat arrakasta handia suposatu duena. Orain arte indarrean izan den arrantza akordioaren arabera, europar batasuneko barkuak Mendebaldeko Saharako uretan arrantzatu dute. Ordainetan, europar batasunak legez Marokoko erresumarenak ez diren uretan arrantzatzeagatik urteko 35 milioi euro ordaindu dituzkie monarkia alaitari. Sinestezina.

Iazko urriaren 25ean berri- z, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin bultzaturiko eta diruz lagunduriko ikastetxea

inauguratu zen lurralde libe- ratuetako Midyic herrian. Hiru ikasgela, komunak, eskola materiala gordetzeko gela eta eskola muga gordetzen duen pareta eraiki dira. Oinarritzko eraikuntza honekin dagoeneko 44 haur eskolatzea lortu da. Hurrengo erronka, eskolaren zabalkundea: sukualdea, jangela eta irakasleentzako bi gela eraikitzea da. Tolosaldea Sahararekin elkartetik, eskerrak baino ez, aurrean ere helburu honetarako diru iturri nagusia izango den Tolosako Laskorain ikastolaren gabonetako merkatu txikiaren diru ekarpenarentzat: traste zahar, amets berri. Sinesgarria.

Rosella, Enric eta Ainhoa Askatu Maroko saharatik at, autodeterminazioa eta independentzia mendebaldeko sahararentzat

Hirukide, euskara plangintzetan erreferente

6 Hirukide ikastetxeak urtebetean Bikain Ziurtagiria eta Kontseiluaren zoriona jaso ditu euskararen alorrean buruturiko lanagatik. Kontseiluak antolaturiko "Haur hezkuntzaren garrantzia euskararen jabekuntzan eta garapenean" jardunaldietan Tolosako Hirukide ikastetxeak erreferentzia praktiko gisara gonbidatu moduan parte hartu zuen. Galtzaundi euskara plangintza horren nondik norakoak eta egunerokotasunaren martxa gertutik ezagutu asmoz, Ane Lasa eta Gurutze Telleria irakasle koordinatzaileekin elkartu da.



Ane Lasa, Hirukide ikastetxe-ko 0-3 urte bitarteko irakasle koordinatzailea eta lehen hezkuntzako euskara teknikaria da. Berari ikastetxeak euskara alorrean eskuratu duen erreferentzialtasunaz galdetzerakoan, lan talde osoari erreferentzia egiten dio: "guk argi daukagu proiektu sendoa daukagula, oinarri oso sendoa dituen eta hezkuntza komunitate osoa bere gain hartzen duena; ikasleak, irakasleak,

bestelako langileak, gurasoak...". Hala ere, egindako lanaz kontent egonda ere, Lasak kanpo erakunde batek lana zoriontzeko pozgarria dela aitortzen du.

Hirukide ikastetxeak, Elhuyar taldearen laguntzarekin 4 urterako hizkuntza proiektua landu du. Lan horretan gidari lanetan, Ane Lasa bera, Joseba Antxustegiarte eta Maite Etxabarri irakasle eta euskara teknikariekin batera jarduten da.

Proiektuaren mamia, egoeraren azterketa egin eta eskuratu nahi den helburua zehaztea da. Bide horretan hezkuntza komunitatearen estamentu bakoitzaren beharrezkoak aztertu eta beharrezkoak dituen baliabideak eskaintzea da, eredu bilakatu daitezkeen. Ane Lasak, azken finean, helburu sinple baina aldi berean konplikatuak dutela zehazten du: "gure ikasleek euskara euren bizitzako hizkuntza

izatea eta kalean hizkuntza era normalizatu batean erabiltzea" da.

Horretarako, txikitatik adimen emozionalaren bitartez lanketa burutzen dute Hirukide ikastetxean. Eredu egokienak bilatzen lan berezia egiten dute ere; horren adibide da Itziar Zubizarretarekin batera Bularretik Mintzora proiektuarekin egindako lanketa. Gurutze Telleriak, 3-6 urte bitarteko irakasle koor-

dinatzaileak, horretan sakondu nahi izan du: "ume txikiekin lanketa berezia egiten dugu eredu egokiak bilatzen; tradiziozko testuekin, ipuinekin, poesiekin, abestiekin... Modu naturalean lantzen ditugu, ludiko eta erakargarrian".

Bestetik, proiektuak estamentu guztiak bere gain hartzen dituela kontuan harturik, Ane Lasa pozik azaldu da gurasoekin lortzen ari diren emaitzekin: "gurasoek euskara ikasteko eskaltegiak egindako proposamenari, 25 guraso berrik baiezkoa eman eta euskara ikasten hasi dira. Lehen deialdi baterako asko da", dio Lasak.

Gurutzek bestetik, langileen motibazioari erreferentzia egin nahi izan dio: "langileen aldetik

inplikazio eta gogoia besterik ez daude. Proiektuan sinesten dugu, egiten dugunaz konbentzita gaude, ez da teoria hutsa, gure babes osoa ematen diogu aurrera eramateko". Izan ere, bai langileen baina baita gurasoen inplikazioa eskuratzeko, 0-6 urte bitartean bereziki tutoreen lana ezinbestekoa da, sendiarekin sortutako hartu-eman horretan lan handia egin daiteke eta.

4 urterako proiektuaz gain urteko plana ere aurrera eramaten du Hirukide ikastetxeak, lehen-tasunak zehaztuz. Horretan ere Eusko Jaurlaritzaren babesak jaso dute. Honek guztiak lana suposatzen badu ere, Ane Lasa eta Gurutze Telleria pozik azaldu dira fruitu eta emaitza positiboak nabari direlako.



Indarrak bildu, euskara indartu

Urteko kuota. Galtzaundi Euskara Taldeko bazkideei jakinarazten zaie urtarilaren amaieran urteko kuota kobratu egingo zaiela.

Galtzaundi Euskara Taldearekin bat egin eta Galtzaundi aldizkaria etxean jaso eta elkarrekin antolaturiko kultur ekitaldietan abantailak izan nahi badituzu indarrak bildu, euskara indartu besterik ez duzu. Egin zaitetz Galtzaundi Euskara Taldeko bazkide, urtean 43 eu-

roren truke. Informazio gehiago Galtzaundiko bulegoan (Nafarroa etorbidea, 6 behea), telefonoz (943 65 50 04) edota helbide elektronikoaren bitartez (galtzaundi@galtzaundi.com).



Udalarekin euskaraz, zure eskubidea delako!

- @ On-line bidezko tramiteetan
- ☎ Telefonoz hots egindakoan
- 👉 Idazki eta eskaerak aurkezterakoan
- 🗣 Udal langile zein agintariekin hitz egiterakoan

TOLOSAKO UDALA
Hizkuntza aholkularitza eta itzulpenak doan
Tel.: 943 69 74 53 - euskara@tolosakoudala.net

Laskorain abesbatza, proiektu hezigarri eta erakargarria

Diskoa, bideoklipa eta kontzertuak

Laskorain abesbatzak 15 urte bete berri ditu. Abesbatzaren ibilbideaz eta azken proiektuez mintzatu da Galtzaundi Naiara Mintegia zuzendariarekin eta Juantxo Zeberio musikari eta konpositorearekin. Besteak beste, "Yau Samayaye" disko eta bideokliparen helburuen eta urtarrilaren 27an Leidorren Eñaut Elorrieta, Et Incarnatus orkestra, Amaren alabak eta Baigorriko gaiteroekin batera eskainiko duten kontzertuaren berri eman digute.

Naiara Roldán de Aránguiz



Laskorain abesbatzak 15 urte bete berri ditu eta ospakizun data honetan badute zer ospatu. Naiara Minegiak gogora ekarri nahi izan ditu abesbatzaren

hastapenak, Inma Irizabal lehen zuzendaria izan zen garaia, hain zuzen ere. Bere esanetan, Laskorain ikastolako musika irakaslearen proposamena izan zen abesbatza martxan jartzea eta gaur egun errealitate izatearen abiapuntua. Gerora, Naiara Mintegiaren aurretik Kepa Martínez de Albéniz eta Idoia Iraola ere igaro dira abesbatzaren zuzendaritzatik.

Naiara Mintegiak 6 urte daromatza bere lana gustura betetzen. Berak dioen modura Laskorain abesbatzaren helburua sorreratik ez da maila izugarria eskuratu eta lehiaketetan parte

hartzea; ikasleak gustura egon eta lan txukuna aurrera eramatea baizik. Bestelako abesbatzekin elkartrukeak egitea euren helburuen artean kokatu daiteke, tartean Bartzelona, Valentzia eta Erroma ere aurkitzen direla. Egun abesbatza 85 bat haurrek osatzen dute bi maila ezberdinetan banaturik; 8-9 urte bitarteko 35 ikasle eta 10-14 urte bitarteko 50 ikasle. Entseguak astean bitan burutzen dituzte, eguerdi partean, eskolaz kanpoko ekintza modura.

Laskorain Abesbatzan mutilek parte hartzeari berebiziko garrantzia eskaini diote abesbatzaren inguruan bilduriko arduradunek:

"abesbatzara mutilak erakartzea eta genero berdintasuna bultzatzea aintzakotzat hartu dugu. Izan ere, abesbatzako mutil kopuru eskasaz kezkatuta, erronka berri baten aurrean jarri nahi izan ditugu ikasleak". Erronka berri horri izenburua jartzen diona, "Yau Samayaye" proiektua da. Hau da, jazza eta pop-rocka alde batetik, eta abesbatza-musika bestetik uztartzen dituen disko eta bideoklipa da "Yau Samayaye". Juantxo Zeberio konpositorea "Yau Samayaye" ekimenaz luze mintzatu da:

Zer topatuko dugu musika aldetik "Yau Samayaye" diskoan?

Eskaintza bariatua. Kontuan hartu behar da umeen abesbatza baterako pentsatutako proiektua dela baina kasu honetan berezitasun nagusia alde aurretik zegoen materialera mugatu ez izatea da, material berria sortu edo moldatu egin dugu. Diskoaren lotura nagusia Tolosa da. Tolosako inauterietako bi kantu, gabonetako bi kantu, eta mundu zabal edota anitz bat ordezkatzeko saiatu gara, esaterako,

Coldplay taldearen edota "Niska Banja" Serbiako kantaren bitartez. Adibideak baino ez dira.

Nabarmenena, izenburua eman diolako eta bideoklipa egin genuelako, "Yau Samayaye" abestia da. Helburua, zerbait ezberdina egitea zen. Kantua nik konposatu nien, afrikar kolore eta erritmoarekin. Inspirazioa Afrika izatea nahi nuen. Tolosan bizi den lagun senegaldar bat daukat. Etxera ekarri nuen, nik doinuak abesten nizean eta bera esaldiak botatzen hasi zen. Aldez aurretik, hala ere, gaia zein izan zitekeen proposatu nion: haurrak, herri mina, familia... Hortik abiatuta sortu zen "Yau Samayaye". Berak azaldu zidan haurrak amari deitzeko erabiltzen duen esaldia dela; hain zuzen ere "Yau sama yaye" delakoa. Dei bat, ama esateko modu bat. Esaldiak ordea "Yau sama nene" erantzuten du, amak haurrari deitzen dionean, alegia. Hori izan zen kantuaren *leit motiv-a*, errepikatzen dena eta diskoari ere izena eman diona.

Nola sortu zen "Yau Samayaye" kantuaren bideoklipa aurrera eramatearen ideia?

Bideoklipa hasieratik planteaturik zegoen proiektua zen. Abesbatzaren kontzertu batean 80 haurretatik 2 mutil baino ez egoteak *moskeatu* ninduen. Kike Amonarriz lehendakari zela mutil gehiago geureganatzeko proposamena luzatu nion. Asmoa proiektu erakargarria planteatzea zen, eguneroko martxa zuen abesbatza horri ez-ohiko zerbait eskaintzea, jendea inplikatzea, alegia.

Helburu nagusia, hala ere, ez zen orain kaleratu den disko-bideoklipa egitea, baizik eta hori eskuratu ahal izateko burutu beharreko bidea. Bideoklipa egiten Laskorain Ikastolako guraso den Pablo Landaluzek lan handia egin du. Bere gidaritzapean gurasoek, irakasleek, ikasleek... parte hartu dute. Bideoklipako protagonista Baba Lo senegaldarra izan da, Landaluzeren bitartez parte hartu du honako ekimenean.

Bideoklipa grabatzeak sinplea ematen badu ere produkzio lan

Etxebarru zein kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor eta apaindura tresnak.
Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa



BENTA ALDEA
JATETXEA

TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN

zurre moda osagalen denda
Korreo Kalea, 3
Tolosa



handia eskatzen du... bi egunez kaleak moztuta egon ziren, lokalizazioak antolatuta... Lana, hala ere, ikastolatik koordinatu da. Hasieratik oso garbi genuen horrela izan behar zuela, bestela zentzurik ez zuela. Izan ere, proiektu osoa ikastola kohesio-natzeko, jendea proiektu baten inguruan biltzeko eta haurrak inplikatzeko helburua zuen. Haurrek honela diskoa grabatzen, bideoklipa grabatzen, entseguak aurrera eramaten, kantu berriak lantzen... ikasi dute.

Proiektu osoa aurrera eramateko garaian auzo lana goraiatu nahi izan dugu; jendea inplikatzeko eta autofinantzatzeko, alegia. (Bideoklipa ikusgai Laskorain abesbatzaren blog-ean: <http://laskabesbatza.blogspot.com/>).

Helburua bidea dela aipatzen duzu, eta zer nolako balioak eskuratu ditu haur bakoitzak abesbatzaren proiektuaren bide honen bitartez?

Nik uste batzuk musikari zuzenean lotuta daudela, baina haurrak poliedrikoak izatea garrantzitsua da. Musikarekin gozatzen ikastea garrantzitsua da. Bizitzeko atea eta leihoak irekitzea da. Pertsona bakoitzak potentzial izugarria du baina ate batzuk ez zaizkigu irekitzen, dena irekitzea

oso konplikatu baita. Munduan dagoen guztia harrapatzea oso konplikatu da, baina haur bat ahal den neurrian poliedrikoak izatea garrantzitsua da. Hori bizitzeko guztian izango du eta.

Musikaren kasuan, 90 urterekin gorpildun aulkian egonda, ibili gabe, hitz egin gabe, kontzertu batera joan edo musika etxean jarri eta disfrutatzea –txikitatik ikasita– garrantzitsua da, bizi kalitate hobea eskaintzen dizu eta.

Hezkuntza mailan abesbatza batean kantatzeak gauza asko eskaintzen ditu. Lehenengo, aldamenean dagoena entzuten jakitea. Abesbatza bat ez da pertsona multzo bat elkarrekin jartzea, pertsona asko helburu berdinekin jartzea baizik. Abesbatza bat abesbatza bat da. Eta horrela funtzionatzen duenean, funtzionatu egiten du. Abesbatzaren norberak bere nortasun zati bat utzi eta kolektibitate horri lagundu behar dio. Horretarako, entzuten ikastea beharrezkoa da. Baloreak hamaika dira, taldean lan egiten ikastea kasu, baina gehien bat nik musikari zuzendutakoak nabarmenduko nituzke: belarria, erritmoa lantzea, ...

Musikari profesionalekin lan egitera ohituta, umeekin lan egitea nolako esperientzia da?

Mugabatzuk daude, entseguetarako denbora mugatua kasu, baina muga horiek onartzen ditugu. Azken finean proiektu hau futbol taldeekin konparatu daiteke, futbola konpetizio edota hezkuntza bezala ulertua izan daiteke. Gure helburua azkeneko hau zen, hezkuntzarena, eta horrek muga batzuk ere badauzka.

Baina bestalde umeekin lan egitea gozamen aberasgarria da, asko ikasten da. Haiek ez dira ikasten duten bakarrak, guk

ere asko ikasi dugu. Umeen potentziala ikaragarria izaten da, askotan ez gara jabetzen haurren potentzialaz, informazioa xurgatzeko, ulertzeko, bizitzeko gaitasunaz. Helduena baino askoz handiagoa da. Hori dela eta, esperientzia oso interesgarria eta emankorra izan da.

Egindako lanaren ostean, eskuartearen euskarri bat izatea pozgarria izango da haurrentzat ...

Baietz pentsatzen dut, baina gaurko umeek hainbeste gauza dutenez... Euskaldunak ez gara emozioak eta eskerrak dohain ematekoak, horretan ere zertxobait falta zaigu... Baina hala ere, haurren aldetik kontentua eta gustura daudela ikusten dut. Hala ere, seguruenik gerora gehiago baloratuko dute.

Abendu partean diskoa salgai jarri zenetik, zer nolako bidea egin du "Yau Samaye" k?

Diskoaren helburua autofinantzaketa izan zen eta lortu egin dugu. Tolosako dendetan, Merkatu Txikian eta Laskorain ikastolan bertan salgai egon da eta jendeak oraindik eskuratzeko aukera dauka. 1.000 kopia kalera-tu genituen baina gure helburua ez da salmenta, istorioa ezagutaraztea da. Ez dadila jendea erosi gabe gelditu ezagutu ez duela.

Jendeak jakin behar du disko polita, alaia dela, entzuteko atsegina dela. Abesbatza diskoak gauza oso minoritario eta espezializatuak direla pentsa daiteke ere, egia esan behar badut, disko hau, bere inperfekzio guztietan, entzuteko oso atsegina da. Haurren ahotsak zerbait berezia dute, goxotasun eta inozentzia bat. Kontzertuaren haria eskaintzen dute, Tolosarekin oso lotuak daude eta oro har, entzuteko oso disko polita da.



Laskorain abesbatzaren aparteko kontzertua Leidorren, urtarrilaren 27an

Eñaut Elorrieta, Et Incarnatus Orkestra, Amaren Alabak eta Baigorriko Gaiteroekin batera taula gainean garai guztietako euskal musika eskainiz

Urtarrilaren 27an, ostirala, arratsaldeko 20.30ean, Tolosako Leidor aretoko taula gainera artista ugari igoko dira Laskorain abesbatzako partaideekin batera: Ken 7 talde ospetsuko Eñaut Elorrieta abeslaria, Et Incarnatus Orkestra Migel Zeberio zuzendari lanetan duela, Amaren Alabak eta Baigorriko Gaiteroak.

2011ko apirilean Baigorriko Nafarroaren Egunerako enkarguz egindako kontzertu bereziaren arrakastaren ondoren, partaideek Tolosa aukeratu dute ikuskizun hura bigarren aldiz eskaintzeko. Doinu ezagun eta hunkigarriak eskainiko dizkiote bertaratutakoari. Mikel Laboa, Xabier Lete, Ken 7, Tolosako inauteriak... denetarikoinuak, zaharrak zein berriak. Guztiak "soineko berriz jantziak orkestrarentzat, kontzertu honetarako espreski egindako moldaketa berriekin".

Ekimenaren bultzatzaile, musikari eta moldatzaile Jantzi Zeberio ilusioz gainezka dago Leidorreko kontzertuarekin: "Baigorriko oso polita atera zen eta Tolosan errepikatzeragoaz, baldintza askoz hobea goetan". Kontzertuaren haria orkestrak eramango du eta gainerako elementuak –Laskorain

abesbatza, Baigorriko Gaiteroak, Amaren Alabak– eszenatokia txandakatuko dira.

Jantzi Zeberio kontzertuarekin joateko gonbitea luzatzen die Tolosaldeko herritarrei: "Gernika, Olatuz olatu... abestiak orkestra batekin, eszenario batean, Eñaut Elorrietak kantatuta oilo ipurdia jartzekoa da". Ikusleko gazteenari ere dei egiten dio, Ken 7 gustuko duen publikoak kontzertua gogoz izango duela adieraziz.

Gabonak igarota buru belarri sartu da Laskorain abesbatza kontzertu honen entsegu eta prestaketetan. Izan ere, kontzertu aurreko azken larunbatean entsegu orokorra izango dute elementu guztiek Leidorren. Naiara Mintegia, Laskorain abesbatzako zuzendaria ere kontzertua helartzeko gogoz dago. Hala ere, denboraz kexu da, hiru aste baino ez baitituzte izango entseguetarako. Berak ere, kontzertua edozein publiko motari zuzendua dagoela argi du: "kontzertu goxoa izango da, instrumentazioarekin erraz eta gustura ikustekoa".

Kontzertua Baigorriin eskaini izanak erraztasuna eskaintzen du Zeberioaren ustetan: "egin zen horretatik abiatuta ahal dugun neurrian hobetu eta emaitzari

dagokionez apustu fuertea aurrera eramatea izango da".

Aurrera begira, laukote horren bitartez, kontzertu gehiago egiteko aukerarik egongo ote den Jantzi Zeberiori galdetzeko garaian, ez dakiela erantzuten du. Tankerako kontzertuek pertsona askoren partaidetza behar dute, diruz garestiak dira eta egungo egoera ikusita zaila ikusten du musikari tolosarrak. Hala ere, eskaintzen duten erakargarritasuna kontutan hartuta posible ere ikusten du. Kontzertuaren berezitasunak aukera ematen du eta. Horrela definitzen baitu Jantzi Zeberio ikusi, entzun eta gozatu ahal izango den kontzertua: "rockaren inguruan dabilen jendea derrepente biltzen eta beste kolore, beste formatu batean ikusteak, esperientzia berriak eskaintzen dizkio ikusleari. Duela 30 urte, bi mundu diferente ziren, ezinezkoa zen rocka eta klasikoa batzea. Oso polita eta hunkigarria izango da".

Galdu behar ez den kontzertu honetarako sarrerak dagoeneko salgai daude Kutxaneten eta Leidorreko leihatilan, 12 euroren truke.

Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izagirre
Gosariak eta meriendak
Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA
Argi lanak
Iluminazioa
Antenak
Iurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi
SEGURAS
BILBAO
Aholkularitza
integrala
Laskorain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin
Eceizabarrena
Instalazio
erreforma
Konponketak
Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK
Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Sakelako telefonoen iraultza

Mugikorrentzako marketing-ari onura ateratzeko jardunaldiak

Ikastn Zerbitzua, sakelako telefonoei buruzko jardunaldi berritzaileak antolatzen dabil. Galtzaundi Ikastn-Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntza-zerbitzuko arduradunarekin, Gemma Zelaiarekin, bildu da "Mugikorrek eta Smartphone-ak: industriara gerturatzea, joerak eta marketing-a" jardunaldien nondik norakoaz hitz egiteko.

Naiara Roldán de Aránguiz

duan emandako bilakaera eta iraultza azaltzea da, sortzen diren joera eta tendentziak aztertzea, marketing mugikorren aukerak aurkeztea eta publikoaren zalantza eta galdera zehatzei erantzuna ematea.

"Mugikorrek eta Smartphone-ak: industriara gerturatzea, joerak eta marketing-a" tailerrak bai erabiltzaile orokorrak eta baita profesionalak ere mugikorren munduak eskaintzen dituen aukera berrietara gerturatu nahi ditu. Gemma Zelaiak zehaztu moduan, "ez da ikastaro tekniko izango, praktikoa eta baliagarria baizik". Izan ere, publiko zehatzari -enpresariak, udal teknikariak, ekintzaileak,

marketing arduradunak, merkatariek, liburutegi langileak, irakasleak, publizitate agentziak, turismo agentziak, webgune arduradunak, elkarte partaideak egokitutako gaiak landuko dira tailerrean. Hitzaldietan ideiak eskainiko zaizkie euren negozio, elkarte edota ardura pertsonaletan indarrean jartzeko; aurkeztutako proposamenak beraz, norberak bere esparrura eraman ahal izango ditu.

Ikastn-eko arduradunak beharrezkotzat ikusten zuen tanke-rako tailerra antolatzea: "IKTen inguruan ikastetxeak ikastaro ugari antolatzen baditu ere, funtzionalitatera bideratutako tailer hau antolatzea beharrezkoa zen". Funtzionala izateaz gain tailerra pertsona bakoitzarentzat egokitu egote aldera izena emateko garaian datu pertsonal ugari eskatuko dituzte. Honela, hitzaldietako adibideak aretoan kokaturiko publikoarentzat ahalik eta bideratuena izango dira.

Izena ematea

Tailerra bi orduko bost moduluatan banatuta egongo da: sarrera-bilakaeratik iraultzara (otsailak 28), teknologia eta mugikorrentzako marketing-a (martxoak 6), aholku eta funtzionaltasuna (martxoak 13), joerak (martxoak 20) eta parte-hartzaileek aurkeztutako egoerei erantzuna emateko saioa (martxoak

27). Tailerra asteartero, 19.00-21.00 bitartean eskainiko du Gotzon Arzelusek.

Izena emateari dagokionez, plaza mugatuak daude eta izena emateko epea urtarrilaren 23tik aurrera zabalik egongo da. Akreditazioaren kostua 25 eurokoa da. Izena emateko bideak ondorengoak dira: www.ikastn.com, info@ikastn.com, Tolosaldea GLHBI (Santa Luzia, 17. Tolosa) edota 943 651147 eta 615 775678 telefono zenbakietan.

2012rako eskaintza oparoa

Ikastn Zerbitzuaren asmoa 2012. urte honetan ere hilabetez hilabete prestakuntza egitarau zabala eskaintzea da. Prestakuntza zerbitzu honen jardunaldirik ospetsuena Jesus Torquemada nazioarteko adituak eskainitako gaurkotasanaren inguruko da, eskualdetik, Euskal Herritik eta baita Kataluniatik ere jendea erakartzen duena. Dagoeneko lanean daude antolatzailak 2012. urte amaieran ere hitzaldi sorta ezagun hau berriro atontzeko eta Torquemadak Tolosarekin duen esklusibotasuna mantentzeko.

Honakoa ordea, ez da Ikastn-ek eskuartean duen bakarra. Udaberri alderako Euskal Herriko egoera sozio-politikoaz aztertze-leek aurkeztutako egoerei erantzuna emateko saioa (martxoak

Tolosan. Gemma Zelaiak, "etxekoa aztertze gogo" duela aitortzen du: "Torquemadarekin nazioarteari, mundu mailari, astindu ederra eman diogu, eta aipatu mahai-ingurua bertakoa lantzeko aukera paregabea izango da, hausnarketarako aukera".

Tankerako ekimenak antolatzailak publikoaren erantzun aldetik beldurra ematen badu ere, Zelaiak pozik azaltzen da orain artean Tolosaldean Ikastn-ek egindako lanarekin: "oso baikor nago orain arte egindako lanarekin, egindako lanek emaitza

politak eskuratu dituzte". Izan ere, Zelaiaren iritzi garrantzitsua, "lanean jarraitzea" da. Horrenbestez, Tolosaldea GLHBI-ko Ikastn Zerbitzuak lanean jarraituko du 2012. urtean ere ikastaro berritzaile gehiago eskaintzeko asmoz.

Gotzon Arzelus: "Ez da ikastaro frikia izango"



tegia globalak eskaintzen dizkio. Enpresa Bilbon eta Bidarten kokatuta dago eta Panamara ere hedatzeko lanetan dabil. Gipuzkoan sakelako telefonoentzako aplikazioen artean, goardiako farmazien eta sagardotegien gida osatu ditu, marketing arduradunei telefonoaren mugak zabalduz.

Zein da "Mugikorrek eta Smartphone-ak: industriara gerturatzea, joerak eta marketing-a" ikastaroaren helburua?

Gotzon Arzelus adituak tailerra era parte hartzaile batean eskainiko du, era praktiko, aktibo eta berritzaile batean. Arzelus Batura Mobile Solutions enpresako zuzendari-gerentea da. Mugikorren aplikazioak eta marketing-a dira Batura Mobile Solutions enpresaren egitekoa. Telefonoentzako aplikazioen garapena egiten du enpresa honek. Erakunde publiko zein pribatuei komunikazio estra-

tsional bati irekita. Telefonoaren beharra duen edozeini zuzendua dago, barne kontsumorako nahiz bezeroarengana iritsi ahal izateko. Ez da ikastaro frikia, ez dugu tekniko edota programatzailea izatea nahi. Kontrakoa baizik, baliagarria suertatzea bilatzen dugu.

Zergatik da berritzailea?

Internet-i buruz ikastaro asko daude. Hala ere, eskuko telefonoa guregana iritsi den azken euskarria da eta sistemak ez daude adostuta, ez dago bateragarritasunik. Eta tankerako ikastaro baten beharra dago. Ezagutza zabaltzeko ikastaroa da honakoa. Hainbat urte sektorean lanean, perspektiba izanda, eboluzioa ezagututa, eboluzio hori partekatzea bilatzen dugu. Eskaintzen diren ikastaroak oso perfil teknikoak dira, kulturizatze ikastarorik ez dago. Ikastaro honen bitartez kulturizatzen ahaleginduko gara.



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113



errrotatxo okindegia

Andia kalea, 3 Amaro, 9-A
Tel.: 943 655 492 Tel.: 943 671 038

ZALBIDE
Tolosa Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan. Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176

SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketak.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA

gizarte kutxa



Gemma Zelaiak azaldu moduan, Tolosaldean Ikastn-en nahia telefono mugikorren mun-

Mikel Gotzon Telleria

Tolosako eliza guztiak tolosarron jabegokoak dira

Mikel Gotzon Telleria Tapia (Tolosa, 1948) Tolosako Babarrunaren Kofradiaren eta Tolosako Orfeoien sortzaileetako izan zen, azken honetako lehendakaria bederatzire urtez izanik. Aurretik, Frantziskotarren abesbatza eta Abeslari Lagunak taldeetan aritua da eta Santa Mariako Kapelan ere aritzen da kantuan, gaur egun ere. Mendingo ibiltzea oso gogoko du. Lanbidez arkitekto teknikoa da, goi eraikuntza teknikari ere klaseak ematen dizkie eta bere zaletasunen artean, historiaren haritik tiraka liburuak idaztea da.

Felix Aiestaran

Eskolapioetan "Los de sexto" izeneko aldizkarian bere lehen poemak argitaratu zituela gogoan du. Bere lehen lana "Genealogía de los Telleria Arrue" izan zen, ondoren nobela historikotzat jo daitezkeen "La venganza de los Jaso", "Las cadenas de oro" eta "El tesoro de los Agotes". Azken honen edizio osoa Santxotena eskultoreak erosi zion. Bestetik, "Euskal Herriko karramarroak" monografia aipatu ondoren, zehaztu beharra dago beste liburuak Tolosa dutela ardatz nagusizat: "Tolosako Idazleak", "Tolosako Orfeoien kronika", "Tolosa munduan", "Tolosako zubiak", "Jeronimoren ondorengoak", "Tolosako Andre Mariak", "Tolosako baselizak", "Tolosako armarriak", "Tolosa egin dugun tolosarrok" Tolosagatik zerbait egin dutenak agertzen dira bertan eta azkena, "Enciclopedia General, Básica de Tolosa" pertsonaiez gain herriko baserri izena duten lekuak, industria, masoneria, esperantoa, filatelia... eta beste hainbat alor biltzen dira, bertan, izen-deiturak euskarazko grafiaz sailkatuta agertzen dira, alde batetik izenen jatorria aintzat hartzen duelako eta bestetik, nahasketak ekiditeko.

Entziklopediaren aurkezpen jendetsua egin zuen Tolosako Kasinoan abenduaren 14ean. Udalarari entziklopediaren laurogei ale oparitu dizkio eta entziklopedia web orriari zintzilikatzea eskatzen dio udalari, sei hilero eguneratzeko konpromisoa bere gain hartuz. Oraindik ez du erantzunik jaso. Aurkezpena egin zuenetik jendearen dei ugari jaso ditu informazio ugari eskuratuz. Plaza Berriko udaletxe zaharrean kokatutako antzerkian 100 zartzuela egin zirela aipatzen du, besteak beste. Herriko eliz eraikinetan

agertzen diren Tolosako ezkutuek gogorarazten diguten modura, beraien jabegoa herritarrena dela eta ez elizarena aldarrikatu beharra adierazten du irmotasunez. Badira agiriak hori egiaztatzen dutenak.

Entziklopedia zehaztasunez osatua bada ere, bihotzez idatzia dago, Mikelek Tolosa barrutik sentitzen duelako. Kontsultarako liburua izateaz gain, irakurri egin daitezkeen entziklopedia eskuratu digu.

Nobela historikoan aritu izan zara...

Datu historikoetan oinarritutako Tolosa eta Amezketaren artean kokatutako sorginei buruzko laugarren nobela historikoa ari naiz idazten. Jauregi Aundi inguruan Erdi Aroko egitura garbia azaltzen da, ondoko Zubillaga auzoko Arma Etxea, Zilartegi baserrian zerga bilketa lekua eta Saizar baserrian janari biltegiak osatutakoa. Tolosa harresiz inguratuta azaltzen da. Jasori dagokionez, pirateriaren gaiari eusten diot. Ustez ingelesak gailentzen badira ere piraten artean, esan beharra dago ingelesak eta frantsesak batuta baino pirata euskaldun gehiago egon zela. Oso ospetsuak eta indartsuak: Michel Le Basque... Agoteen inguruan, aipatu beharra dago mundu osoan horren ezagunak diren Iruñeako agote batek eginak direla, Tadeo Amorenak, alegia. Idatzi gabe dagoen agoteen aldarrikapena egin nahi dut: agoteak eskulangile trebeak izan ziren, lur jabegorik ezin zuten izan, beste gaitasunak jorratu behar izan zituzten. Nafarroaren historia inguruan "Las cadenas de oro" argitaratu dut. Nafarroako kateak; inork ez dakienez non



dauden, San Migeleko haitzuloan egoteaz fabulatzeko aukera ematen dit.

Nobela historikoa tresna egokia al da jendeari historiaren ezagupena helarazteko?

Bai. Nik beti idatzi gabe dagoen zerbaiti buruz idazten dut. Nobela historikoa datuetan oinarrituta, irudimenari aske ekiteko aukera ematen du.

Biografiez osatutako "Tolosa egin dugu tolosarrok" CD formatuan atera zenuen... Nola dago osatuta?

Minibiografiez osatuta dago lehen zatia. Bigarren atalean eranskinak azaltzen dira, bertan neronek egindako planoak Tolosaren garapena azaltzen da. Era-kunde zibil eta erlijiosoak, musika taldeak, elkarteak, txarangak... Ospakizuneko egun tradizionalak: hor aipatu beharra dago igandero-igandero Tolosako txistu banda jotzen aritzen dela Tolosako kaleetan zehar. Desagertzen denean txistulariak garenok ez, inork ez du aintzat hartuko... Bes-

etik gaikako tradizioak agertzen dira. Tolosan egiten ziren edo diren lau zezenketa motak azaltzen dira: sokamuturra, entzierroak, korridak eta enbolatuak. Azaltzen den beste ohitura arraunketarena da. Alkate zerrenda ere agertzen da. Lehendik udal artxiboan, XVI. mendetik aurrera agertzen badira datuak, nik XIII. mendetik aurrerokoak aipatzen ditut. Udalek, udal-erri askearen aiurria galdu gabe, bere nortasunari eusten bazioten ere, Tolosa babesleku harresiduna zenean, ia Tolosaldea osoa zuen bere barnean.

Nola eratu zenuen datu bilketa?

Estornes Lasak zioenez, bere lana osatzeko Euskal Herriari buruzko liburu guztiak erosten zituen; horrela nik Tolosa gaitzat duten liburu asko ditut, aztertu eta fitxak egiten ditut. Pertsonaiak internetetik atera daitezke, baina ez dute ongi egin, bertan aipatutakoaren aita eta ama besterik ez baitira aipatzen. Aitona-amonen izenak eta jatorrizko herria aipatzea garrantzitsua da.



Tolosarre bere historia ezagutu dezaten bitarteko egokia al da?

"Tolosa egin dugu tolosarrok" liburuan pertsonaiak jaiotza ordenaren arabera sailkatuta daude. Tesi doktoralik egitea ez dut nahi, tolosar guztiak ulertzeko moduko aipamen laburtuak jarri nituen bertan. Gertaera historikoei bezalaxe, egunerokotasunaren gertaera xumeek dute tokia.

Nola sortu zen "Enciclopedia General, Basica de Tolosa" egiteko asmoa?

Pertsonaien liburu batean sartzan ez diren datu ugari liburu batean bildu beharraz jabetu nintzen: lanbideak, xaxuen errezetak, berezko janariak, minduko Tolosak (Filipinak, Tasmania, Venezuelan... daude), eskudoak, eskulturak....

Masoneria, esperanto eta filatelia arloan Tolosak izan zuen garrantzia aipatzen duzu...

Tolosa sortu zenetik duela lau egun arte Iruñearekin batera Euskal Herriko hiririk garrantzitsuenak izan zenez, alor horiek bertan agertzea ez da harrizkoa. XIX. mendean Tolosa, Europatik zetozten bideentzat lotune garran-

tzitsua zen Nafarroa eta Gaztela aldera joateko. Horrek indar ekonomiko eta politiko aipagarria eragin zuen. Probintzien izendapena boboiaren asmakizuna da; lehen lurralde historikoei ziren eta bertan ez zegoen hiriburu kontzepturik, Gipuzkoako Juntak lau herritan mugitzen ziren eta orduan Tolosa herririk garrantzitsuenak zen. Gipuzkoako hiriburua finkatu behar izan zenean, Tolosan horrexegatik jarri zen; ondoren Donostiara eraman zuten: on dagiela... Donostiak ez zuen batere industriarik, baina Tolosa ia Europa mailako paper fabrika gune garrantzitsua zen. Horrek guztiak Tolosa gune kultural garrantzitsua izatea bideratu zuen. Lopez-Mendizabal, Eloseggi, Limusin... esperanto taldea eratu zuten XX. mende hasieran. Masoneriaren logia bat Korreo kaleko 38an zegoen kokatuta.

Nola dago egituratuta entziklopedia?

Ohiko entziklopedien modura, A-tik Z-ra. Izenak euskal grafiaz idatzita daude. Aurreko liburuan arazoak izan nituen: Eloseggi-Elosegi, Echeverria-Etxeberria... batzuketan era batera besteak bestera, nahasketa eragin zuen.

Akatsak zuzentzen

355. aleko "Tolosaldeko frankismo eta trantsizio garaia" elkarrizketan Alpino Uzturre aipatzerakoan 50. urteurrena dagokio eta "Frankismoaren garaia" demokratizazioa, Francoren heriotzaz abiatu bazen 1976an" esaldian 1975 dagokio.

Liburua argitaratzea erraza izan al da?

Jendeak irakur ditzan liburuak doan eman nahi izaten ditut. Lau-rehun aleko argitalpena izan da eta agortuta dago. Kutzak laguntza ekonomikoa eman du. Oraingoan diru gutxi lortu dudanez, argazkiak txikiak eta zuri-beltzean dira. Web orrian jartzen badira koloretan eta handituta agertuko dira.

Zein bitxikeria aipatuko zuneke?

Iurreko ama-birjina Navas de Tolosako borrokaldian egon zen. Izaskungo ama XIV. mendekoa da... ama birjinekin monografia egin dut, munduko Tolosak eta ezkutuekin egin dudana modura. Tolosan 38 zubi daude. Arte zibillean, Gipuzkoako ezkutu zaharrraren jatorria azaltzen dutena artxiboko Jeronimo de Larrearen erretaulak aipatu behar dira.

Entziklopediaren aurkezpenean, eliza barruan Tolosako ezkutuan bertako elizak udalarek direla aipatu zenuen...

Nafarroan asko azaldu da gai hau. Elizak erregistroan bere izenean jarri zituen, berak erabiltzen zituenaren aitzakiaz. Tolosako eliza guztiak tolosarrok jabegokoak dira. Santa Maria eliza Tolosako Udalak eraiki zuen. San Frantzisko elizan ere ipini ziren ezkutuek. Duela oso gutxi Udalak izendatzen zuten bertako parrokoa. Tolosako Udala eliza guztien jabe denaren berri ematen duten agiriak badira. Erregistro zibileran eramanen gero, argi dago auzia. Santa Klarako komentuko agiritan, Tolosako Udalak ezin duela bere patronazgoari uko egin aipatu ere egiten da. Erabilpena utzi daiteke, baina jakin dadila jabegoa herritarrak dela. Tolosako Udala

ermiten jabegoaz geratu zen, baina eliz eraikin guztiak dira bereak. Udalak ezin dio jabego horri uko egin.

Tolosako nolako argazkia atera zaizu?

Argazki ona atera da, baina jabetzen naiz hainbat alor faltako direla bertan. Garmendia, Tuduri, Eloseggi, aurreko alkateari... hitz guztiak bidali nizkien eta falta direnak esateko adierazi nien. Jasotzen ditudan zuzenketak eskertzen ditut.

Liburu formatuaz gain, interneten sartzeko asmorik ba al duzu?

Oso bitxia da. Tolosako alkatezari 80 liburu oparitu dizkiot eta ez erantzunik, ezta eskerrik ere ez dut jaso, oraindano. Minduta nago, 1.200 euroko balio dute. Tolosako Udalak entziklopedia web orrian zintzilikatzea eskertuko nuke; ni prest nago eguneraketak egin eta datu gehiagorekin osatzeko.

Zer duzu esku artean?

Iñauteriei buruzko liburu osoa zuten ari naiz. Elkartea, txaranga, partitura guztietako liburuak ari naiz arakatzen... Lehenik iñauteria zer den azaltzen dut. Ondoren datuak aipatzen ditut. Munduko iñauteriak aipatzen ditut. Iñauteriak, garizuma aurreko kristau festak direla zehaztu beharra dago. Ondoren euskal iñauteriak azaltzen dira. Gero, Tolosako iñauteriaz ari naiz. Iñauterien historiari ere heltzen diot, argazki ugari hornituta. Azkenik, alborada, diana, iñauteriei buruzko argitalpenak, kartelak... Tolosako iñauterietan Ezpeleta eta Garmendia batera saltoka jartzen dituzte, herritar guztiak maila berean jartzen ditu.



Amaia Etxetxipia
Nutrizio aholkularia

Gabonak pasa dira eta batek baino gehiagok izan du egun hauetan janariarekin gozatzeko aukera; batzuek gazia dute gustuko, besteek ordea gozoa. Izan ere, dastamenak atsegin fisiko bat sortarazteaz gain, jateak eta edateak pertsonengan balio sinboliko eta estetiko bat ere gordetzen du.

Koxk! Zaporeak eta dastamena

Dastamena, ahoan ditugun dastamen-papilaren funtzioa da; bere garrantzia izan badu. Izan ere, pertsona batek, gustuko dituen elikagai eta edariak aukeratzeko dituen dastamen-papilak esker. Eta nola sortzen da dastamena? Substantzia kimiko disolbagarriak mihiarekin bat egiten dutenean.

Gizakiak, zapore asko nabaritzen ditu, zenbait estimuluaren konbinazioaren ondorioz, horien artean, ehundura, tenperatura, usaina eta dastamena aurki daitezke. Dastamena, dastamen-papilak estimulatzen direnean ematen da. Gehienak mihiaren daude, baina beste zenbait aho-sabaian ere aurkitzen dira eta beraien sentibilitatea aldakorra da. Badirudi oinarritzko bost zapore detektatzen ditugula: gozoa, garratza, gazia, mikatza eta "umami" izenekoa (glutamatoaren zaporea, elikagai proteikoetan, batik bat, eta glutamato monosodikoan agertzen dena). Hala ere, jakina da pertsona batek ehunka edo milaka zapore

desberdin nabaritzeko gaitasuna daukala oinarritzko zaporeen konbinaketak medio. Gizakia- ren ia 10.000 dastamen-papilak, modu ezberdinean kokatuta daude mihiaren gainazalean eta konposatu kimiko ezberdinak detektatzen dituzte; egoera honetarako mihiarekin bat egiten dutenean.

Orokorrean, honela sailkatzen dira: gozoari sentikor diren dastamen-papilak mihiaren aurreko aldean, gazia eta garratzari sentikor direnak mihiaren bi aldeetan, eta mikatzari sentikor direnak mihiaren atzeko aldean.

Janarietan dauden substantzia kimikoak ahoko hezetasunean disolbatzen dira eta dastamen-papiletako poroetatik zehar sartzeko, zentzumen-zelulekin elkartuz. Disolbatuta dagoen substantzia batek errezeptore bat estimulatzen, nerbio-kinadak bidaltzen ditu garunera. Nerbio-kinada horiek errepikatzearen maiztasunak zaporearen intentsitatea emango du. Gure zentzumenen (dastamena, usaina, entzumena, ikus-

mena eta ukimena) kontrol nagusia garunean dago eta mihiak eta garunak batera egiten dute lan janariak dastatu ahal izateko.

Janariaren zaporea, usaina, tenperatura eta ehundura konbinatu egiten dira janariari gustu berezi bat emateko. Zapore hori ezagutu eta gozatu ahal izateko, garunak sudurretik eta mihiatik datorren informazioa behar du (horregatik adibidez, gripearekin edo hoztuta gaudenean janariari ez diogu gusturik hartzen).

Dastamen-papila hauek 7-8 asteko fetu batean agertzen omen dira, haurdunaldiko hirugarren hilabetean aktibatuz. Badirudi haurtxoak likido amniotikoaren bitartez oinarritzko zaporeak maila desberdinetan nabaritzen dituela. Oraindik ikertzen ari dira, egoera horrek pertsona batek bizitzan zehar izango dituen gustuetan eragirik ote duen.

Baina 60 urtetik aurrera, gutxi gorabehera, dastamena eta usaimena ahultzen doaz eta horren ondorioz jateko gogo

ere murriztu daiteke. Egoera honek adineko pertsonengan desnutrizio eta pisu galeraren arriskua handitu egiten du, gaitzotzeko arriskua ere handituz. Beraz, kasu hauetan jateko gogo piztea garrantzitsua izango da, ongi elikatuta egon daitezen. Eta zer egin dezakegu janariaren zaporea indartzeko? Ba adibidez espeziak erabili, usain-belarrak eta zukuak; janariak ehundura atsegina izatea ere garrantzitsua da. Zapore, tenperatura eta ehundura desberdineko janariak aldizkatzea ere komeni da.

Eta azkenik, dastamenak ongi lan egiteko, gomendio hauek ematen dizkigute:

- janari minak, alkohola eta tabakoa ekiditea.
- janari oso beroak ere ekiditea, mihiko papilak eta ahoko mukosa narriatzen direlako.
- eta ahoko garbitasuna zorrotz mantentzea!

Oria Txaranga, 30 urte festaz festa

Oria Txaranga 30 urte bete ditu. 1981eko San Tomas egunean eskaini zuen lehen emanaldia. Bertako partaide ugari Tolosaldekoak dira eta sarri ikusi ditugu ere Tolosako kaleetatik barrena festarako doinuak zabaltzen. Oria txaranga partaide Jose Jabier Garcia Artetxerekin elkartu da Galtzaundi urte hauek guztiek eman dutenaz hitz egiteko.

Igor Mujika

Jose Jabier Garcia Artetxek 29 urte daramatza Oria Txaranga helikoia jotzen. "Los politos fanfarrea gain-beheran zela-eta, bertako kide batzuk txaranga bat sortzea erabaki zuten. Tolosa, Andoain eta Lasarteko herritarrak ziren eta, hiru herriak Oria ibaiak lotzen zituelako, Oria izena jarri zioten". Hala gogoratu ditu Oria txarangen hastapenak Jose Jabier Garciak. Bera, gutxi gora behera, urtebete beranduago sartu zen Oria txaranga.

Bi tronpeta, tronboia, bombardinoia, txapa, bonboa, kaxa, sasofia eta helikoia jotzeaz arduratzen diren bederatzik musika osatzen dute Oria txaranga. Errege eguna pasata, larunbatero Tolosan elkartzen dira entsaiatzeko. Hala aritzen dira apirila artean. Ondoren, herriz herri ibiltzen dira, urriko lehen ostiralean Arrasaten ospatzen den Maritxu Kajoi eguna arte. Estilo ezberdinetako -sanba, runba, paso doblea,- 200 kanturiko inguruko errepertorioa dute eta, urtetik urtera, bost-sei kantu berri sartzen dituzte euren erre-



pertorioan. Guztietan gustukoena, Xalbadorren "Heriotzean" eta Mikel Laboaren "Txoria txori" ditu Garcia Artetxek. Herritarrek ere behin eta berriro jotzeko eskatzen dizkiete aipatu kantuak. Horietaz gain, abesti mexikarrek dute arrakasta gehien, bere irizian.

Euskal Herriko herri eta hiriburu gehienetan jo du Oria txaranga. Baionako kaleak alaitzen, esaterako, 21 urte daramatza eta, Garciaren esanetan, guxtienez ondoko lau urtetan ere joan nahiko lukete Lapurdiko hiriburura. Bada, ordea, oraindik sekula bertan jo ez duten herririk. Hala azaldu digu Garcia Artetxek: "Bergaran ez dugu oraindik jo. Ondoko herri guztietan jo dugu eta gustura joango ginateke bertara ere".

Garciaren esanetan, asko aldatu dira Euskal Herriko festak azken urteetan eta txarangek ere jasan dute eraginik. Esaterako, lehen 30-35 pertsonek osatzen zituzten txaranga. Egun, 10-12 lagunek osatzen dituzte. Horren arrazoietariko bat aurrekontuak direla jakinarazi digu Garcia Artetxek. Duela urte batzuekin konparatuta, egun txaranga asko dagoela esan digu halaber Garcia Artetxek. "Instrumentuak jotzen dakiten herritarrak txaranga osatzera bultzatu ditu langabeziak eta geroz eta lehia handia-

goa dago batzuen eta besteen artean".

Orduetegiari dagokionean ere ezagutu dute aldaketarik. Garai batean gauek goizaldera aritzen ziren eta, egun, aldiz, 19:00ak eta 22:00ak artean, eta, 22:00ak eta 02:00ak artean, jotzen du. Iruñea da salbuespena. Izan ere, beste herri eta hiriburu gehienetan ez bezala, bertan gazteak ere txarangen atzetik dantzan ibiltzen dira, Garciak esan digunez. Gustura ibiltzen zirelako, duela ez urte asko arte, San Ferminetako egun guztiak Iruñean pasatzen zituzten Oriako txaranga kideek eta goiz, arratsalde eta gauz aritzen ziren bertako kaleetan herritarrak dituzten. Lan konputuak medio, ordea, San Ferminetako egunero jotzeari utzi egin behar izan zioten.

Tolosako inauterietan ere arrakasta handia dute txarangek. Egun guztietan ibiltzen da txarangen bat edo beste eta Oria txaranga ere gustura aritzen dira herritarrei festarako doinuak musikatzu. Garcia Artetxeren hitzetan, "normalean, larunbat eta igandean, 23:30etik 03:00etara jotzen dugu. Bi txaranga aritzen gara ordu horretan Tolosako kaleak alaituz. Guri Tolosako goi alde tokatzen zaigu. Bertan, ordea, jende gutxiago egoten da eta, bertako kaleetatik igaro ostean, Alde Zaharrera joaten gara".

Orokorrean, ordea, "lehen gure atzetik saltoka ibiltzen zirenak, orain txalo egiten digute", adierazi digu.

Bitxikeriak

Bitxikeria ugari izan dituzte 30 urte hauetan. Horietatik bi nabarmendu dizkigu Garciak: "Lezoko festa batzuetan kiosko gainean ari ginen jotzen, sokamuturra alaituz. Halako batean zezena kioskora igo zen. Batzuk korrika egin zuten ihes. Ni, aldiz, zezenaren aurrean geratu nintzen, helikoiak berarengandik babesten ninduela. Pasaira ere sarri joaten ginen, bertako elkarte batek deituta. Elkarteko bazkide bat hil egin zen. Nafarra zen bera eta, ondoko bost urtetan, urtero-urtero, bere hilobiaren aurrera joan ginen "No te vayas de Navarra" kantua jotzera".

Halaber, helikoiak buru handia duela eta, hainbat herritar bertara denetik sartzen saiatzen dela azaldu digu. Iruñeako San Ferminetan, esaterako, emanaldia amaitu ostean puru asko topatzen zituen Garcia Artetxek helikoian sartuta. Horri ere soluzioa bilatu dio, ordea, eta, egun, bertan saretxo bat jarrita joaten da San Ferminetan jotzera. Izan ere, txarangek, modu batera ala bestera, herritarrak alaitasunera gerturatzen dituzte.

Errotulazioa & inudia
Vicente
www.rotulosvicente.com
943 69 02 94
taller@rotulosvicente.com
Laskibar bialara 25, 1-04 atna
20271 Iruia (Gipuzkoa)

Saldias Miguel
CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA
N. D.G.S. J.1759
Bizi-asegurua
Kotxe-asegurua
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurua
Denda-asegurua
Erretiroak
Inbertsio fondoak
SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

0100100
00111100
00111100
00111100
Tolosa Bit
Informatika Zerbitzuak
Ondaregaitzak eta konputatzaileak
Enpresa eta partikularrentzat
Mantentzeak
Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

irakurri entzun Ikusi

Euskal zizelkariak
Michel de Jaureguiberry, Patxi
Laskarai, Gaizka Iroz eta Marc
Etcheverry

Ilustrazio liburu honek euskal
eskulturaren historia konta-
tzea du xede; horretarako,
Euskal Herriko ia bost men-
detako 25 artista ezagun eta
adierazgarrienak aurkezten
ditu.

Tolosa Kantari DVD
Bonberenea Ekintzak

Boberenea Ekintzak-ekTolo-
sa Kantariren ekimena erre-
ferentzia hartu eta DVDa
argitaratu berri du. Lanak
12 kantu eta erreportaje
bat jasotzen ditu, kantuak
azaroaren 26an grabatu
ziren Tolosako kaleetan
barrena

Vicky bikingoa
Michael Bully Herbig

Vicky-k bere herria bere esku
hartuko du Sven-ek bere aita
bahitzen duenean. Bere ar-
dura izango da aita askatzea.
Itsaso ekaiztsuak, hondartza
tropikalak eta bestelako arriskuak
aurrez-aurre izango ditu. Horretaz
gain, jainkoen altxorra babestu
beharko du.

Urtarrilaren 20tik otsailaren 3ra bitarteko hitzordduak

Hitzaldia

Euskal Herriaren Historia. Urtarrilak 20, ostirala. 21.00. Ikaztegieta. Udaletxeko areto nagusia.
Julian Bereziartua medikua. Urtarrilak 27, ostirala. 21.00. Ikaztegieta. Udaletxeko areto nagusia.

Erakusketa

Baserritik Zerkausira. Targazki -Tolosaldeko Argazkilari Taldea-. Urtarrilak 21a bitartean. Tolosako Aranburu Jauregia. Erakusketa hau larunbatero Zerkausian baserriko produktuak saltzen dituzten hainbat ekoizleri egindako erreportajea da, eta jakien ekoizpena bizi-modu egin dutenei omenaldia.
Ero Etxeko Krossaren argazkiak 1988-2011. Urtarrilaren 21a bitartean. Tolosako Kultur Etxeko areto nagusia. Krosaren 25. urteurrenean, Ero Etxe elkarteak antolatutako erakusketa.

Kirikiño aisialdi taldearen erakusketa eta proiektzioak. Urtarrilak 28-otsailak 5. Tolosako Kultur Etxeko areto nagusia. Aisialdi taldearen 25. urteurren ospatzeko antolatutako argazki proiektzioa, urte ezberdinetako panelak eta taldearen inguruko dekorazioa.

Compagnie-Atelier Arketal. Tolosako Topic aretoa.

Festa

Batxixango jaialdia. Urtarrilak 21, larunbata. 19.00. Tolosako Beotibar pilotalekua. Ikazte-
txeetako batxilergoko 2.maila-
ko ikasleek antolatuta.

Zinea

Vicky bikingoa. Urtarrilak 22, igandea. Tolosa, Leidor. 90 min, ikuslego orori zuzenduta.

Tolosa kantari

Urtarrilak 28, larunbata. Tolosa, Tontokale-Agirre doktoaren plaza. 12.00.

Tailerra

Malgutasun eta luzaketa tailerra. Urtarrilak 21, larunbata. Aduna, Asvinenea. 10.00-13.00 eta 16.00-20.00. Ane Mirenek eskainia. 50 euro (bazkideak 45 euro). Ikastaroa hilean behin ospatzeko intentzioa du Asvinenea Eskolak. Informazio gehiago: asvineneaeskola@gmail.com eta 665 738081.

Kirola

Eski alpinoa (Gourette). Urtarrilak 28 eta 29, larunbata eta igandea. Oargi Mendi Elkarteak antolatuta.



Bertso jaialdia

Txolarre Irratiaren Bertso Jaialdia. Urtarrilak 21, larunbata. 18.00. Tolosako Leidor aretoa. Amaia Agirre gai jartzailer bezala arituko da antzokiko taula gainean. Bere esanetara sei bertsolari: Andoni Egaña, Jon Maia, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Jexux Mari Irazu eta Gipuzkoako txapeladun berria, Aitor Sarriegi.

Kontzertua

Laskorain abesbatza + Et Incarnatus, Eñaut Elorrieta, Amaren Alabak eta Baigorriko Gaiteroak. Urtarrilak 27, ostirala. 20.30. Tolosako Leidor aretoa.

Uzturpe Ikastolaren kultur astea

Ibarra. Hitzaldiak Benito Izagirre kultur etxean.

Urtarrilak 30, asteazkena. 10.00. Euskal musika tresnen saio didaktikoa. Inaki Plaza, Ion Garmendia eta Kepa Calvo. LH 3. ziklo eta DBH ikasleentzat zuzendua.

Urtarrilak 30 asteazkena. 18.00. "Nik ere ondo bizi nahi dut Ibarrran". Axun Jauregi eta Quintina Sanchez, Goyeneche Fundazioa.
Urtarrilak 31, otsailak 1 eta 4. 14.30. "Jokoak eta jolasak". 3-8 adin bitartea. Ikastolaren elkar-
teak eskainia. Gurasoei zuzen-
dua. Aldez aurretik izena eman
beharra.

Urtarrilak 31, asteartea. 17.00. "Arreta gabestia eta hiperakti-
tatea, TDAH". Gipuzkoako Arreta
Gabestia eta Hiperaktibitatearen
elkar-
teak eskainia. Hezkuntza
profesionalei zuzenduta.

**Otsailak 1, asteazkena. 17.00
eta 18.30.** "Atea zabalik eguna".
Emeterio Arrese eraikuntzan 2
urteko haurren gurasoei zuzen-
duta.

Otsailak 2, osteguna. 14.30. El-
kartasun kilometroa: Saharako
Tichla herriarekin.

Otsailak 4, larunbata. 15.00. Puzgarriak, aurpegi margoketa,
txokolatada eta Alurr dantza
taldeko gaztetxoaren emanaldia.

Otsailak 5, igandea. Mendi ir-
teera Uli mendira.

Langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbide eta Hezkuntza Sailak diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Lan eta ingurugiro arriskuen prebentzioa txirbil ha- rroketa bidezko mekanizatuan	2012.02.27	30
Testu tratamenduen aplikazio informatikoak (Word oinarrizkoa)	2012.02.27	30
Fluordun hozkailuen manipulazio ikastaro osagarria	2012.02.27	24
CAD-2D (Autocad hastapena)	2012.02.27	40
CNC fresagailuaren programazioa - Fagor	2012.02.27	70

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?
Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora.
Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa
Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



Goardiako farmaziak

Ostirala, 20 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	Asteazkena, 25 Morant, R (Zabalarreta, 1) Tolosa	Astelehena, 30 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa
Larunbata, 21 Morant, R (Zabalarreta, 1) Tolosa	Osteguna, 26 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Asteartea, 31 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa
Igandea, 22 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Ostirala, 27 Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	Asteazkena, 1 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa
Astelehena, 23 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Larunbata, 28 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	Osteguna, 2 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
Asteartea, 24 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Igandea, 29 Morant, R (Zabalarreta, 1) Tolosa	Ostirala, 3 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa

Telefono interesgariak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com



**SANTA
LUZIA
GARAJEA**

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protesiko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

• Eguzkitza Sagardotegiak sukaldean eta parrillan aritzeko langile bat behar du. 660 65 43 17 (Jon)

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m² eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Ikaztegietan 100 m²-ko 5. pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta 2 trastero. Balkoi handi eguzkitsua. 637 914126

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldea, sala, komuna eta trastero. Dena kanpokalde, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Ariz.

Horoskopoa

Urtarrilaren 20tik otsailaren 3ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
2012. urte hasiera harrigarria izango da; proiektu berriak eta aurreikuspen baikorrak datoz, aurrera eraman ahal izateko gogoz ekin beharko diezu. Inguruko pertsona gehienek laguntza eman nahiko dizute baina tentuz susmoak sortzen dizkizunarekin.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Aurreko urtearen jarraipena izango duzu, alor guztietan lasaia izango da. Egoera mantenduko duzu. Zure irimotusunak, aldeketa handiegirik ez egotea ahalbidetuko du. Elikadura zaindu ezazu.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Osasuna ezegonkorra izango da, buruan aldi berean kontu ugari izango dituzu eta horrek buruko minak sortuko dizkizu. Aukeraketa egokiak egin beharko dituzu, harreman emankorrek aukeratu itzazu.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Sentikortasuna gordetzeko asmoz, irainetatik babesteko oskolan sartzeko joera duzu. Eragin handiko pertsonak dituzu inguruan. Dirua ondo kudeatuko duzu.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Miresten duzunekiko eskuzabala zara, honek gauzak lortzen ere lagunduko dizu. Hala ere, zure eskuzabaltasunak arazoren bat baino gehiago sortuko dizu. Sasoiari mantenduko zara urte osoan zehar.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Diruz ondo ibiliko zara, ez duzu alperrik gastatuko, eta horrek arazoak konpontzen lagunduko dizu. Osasun aldetik urdail eta sabelean arazoak izango dituzu. Kontuz asmatutako gezurrekin!



libra

Irailak 23-Urriak 22
Kontu positibo eta negatibo artean oreka bilatzen trebea zara, hala ere batzuetan ezinezkoa da gertakizun ezkorrek ekiditea. 2012. urteak oreka, ordena eta zuzentasuna ekarriko dizkizu.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
Inoiz baino indartsuago egongo zara. Lagun ona zara eta beti laguntza emateko prest ageri zara. Aurten, hala ere, eskaintako laguntza bueltan etorriko zaizu.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21
2012an diruari bizirauteko balioa emango diozu. Diruak ilusioz zipritinduta edonora eramango zaitu. Urduritasunak arazo bat baino gehiago sortuko dizu.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20
Lanean dena ondo antolatuta izatea gustuko duzu, hala ere 2012an zailtasun eta arazoak aurkeztuko zaizkizu. Zure lagunek ondo dakite zure konpainiaz noiz disfrutatuko eta noiz bakarrik utzi.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
2012an arrakasta bilatuko duzu lan kontuetan. Lagunak aukeratzeko trebea zara eta urtean zehar haien esker aukera bat baino gehiago suertatuko zaizu.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20
Zalantza ugari izan eta aholku eske ibiliko zara, hala ere zure gustukoa egiten amaituko duzu. Intuizio handia duzu eta horrek arazoak konpontzen lagunduko dizu.



Komikia: Joseba Antxustegietxarte

Konfiantzan, Ikastola



Aurrematrikula Epea

Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

Ordua

9:00-12:30/15:00-18:00

Anoetako Herri Ikastola
943 65 29 32
www.anoetakoherriikastola.net



Irurako Ikastola
943 69 43 74
www.irurakoikastola.net



Jesusen Bihotza Ikastola (Villabona/Zizurkil)
943 69 23 21
www.jesusenbihotzaikastola.com



Laskorain Ikastola (Tolosa)
943 69 71 22
www.laskorainikastola.net



Tolosako Inmakulada Ikastetxea
943 67 36 29
www.inmakuladatolosa.com



Uzturpe Ikastola (Ibarra)
943 67 12 99
www.uzturpe.net



TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA



telefonoa
943651063
webgunea
www.samaniego-tolosa.com
e-posta
012244aa@hezkuntza.net



- :: Haurreskola
(0-2 urte Plaza Berrian)
- :: Haur eta Lehen Hezkuntza
(2-12 urte Samaniegon)



Haur Txokoa



07:30etik
aurrera



ORIXETOLOSA

Mundu Zabalerako Zubia

- :: Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntza
- :: ZIG - Lanbide Tailerra
- :: Batxilergoak

telefonoa
943651387
webgunea
www.orixe.net
e-posta
012980aa@hezkuntza.net

Euskaratik eta Euskaraz



Matrikula epea: urtarrilaren 30etik otsailaren 10era